PERTSONA ZAINTZAILEEI LAGUNTZA EMATEKO ETA ESKU-HARTZE PSIKOSOZIALA EMATEKO ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN PLEGUA.

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Subjektu-kontratatzailea Zierbenako Udala da, Tokiko Administrazioan izaera juridikoa eta publikoa duena, hain zuzen ere.

Kontratazio-organoa Zierbenako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordea da, plegu honetako 4. Eranskinean zehaztutako balio zenbatetsia aintzat hartuta.

Kontratazio organoa Kontratazio-mahaiak zuzenduko du, eta ondoren adierazten den bezala osatua egongo da:

Presidentea: Lorena Renovales Uranga (Zierbenako Udaleko behin-behineko idazkaria)
Batzordekidea: Tatiana López García (ofizial)
María Jaca Ibarbia (ofizial)
Idazkaria: Marta Manzano del Toro (ofizial)

2. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da pertsona zaintzaileei laguntza emateko eta esku-hartze psikosoziala emateko zerbitzuak eskaintzea, baldintza teknikoen pleguarekin, eta kontratu-izaera izango duen espedientean agertzen den gainontzeko agiri teknikoekin bat etorriz.

3. EPEA

Kontratu honen iraupena BI URTEKOA (2) urtekoa izango da, kontratua sinatzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Kontratuaren epea urtero luzatu ahal izango da, gehienez beste BI URTEZ; horretarako, eskumena duen kontratazio organoak espresuki adierazi beharko du.

Nolanahi ere, kontratua amaitzear dagoela Udalak beste kontraturik esleitu ez badu, kontratistak zerbitzua ematen jarraituko du gehienez (6) hilabete eta tarte horretan Udalak zerbitzu horren kudeaketa erabakiko du eta kontratazio berria, eta zerbitzuak iraungo du esleipendun berria izan arte, bitarteko guztiak eskainiz.

4. KONTRATUAREN PREZIOA, ESLEITZEKO AURREKONTUA ETA BALIO ZENBATETSIA

Kontratua betetzeko dagoen urteko lizitazio aurrekontua, gehienez, urteko HAMAR MILA EUROKOA da (10.000 €), eta ondoren adierazten den bezala banakatzen da:

Esku-hartze psikosozialari dagokion zerbitzua: 7.250,00 €
Pertsona zaintzaileei laguntza emateari dagokion zerbitzua: 2.750,00 €
Zerbitzu horiek ez daude BEZaren mende.

Enpresa esleipendunek aurkeztutako eskaintzek ezin izango dute, inolaz ere, urteko aurrekontu hau baino handiagoa aurkeztu. Izan ere, handiagoak direnak automatikoki baztertuko dira.

Kontratuaren aurreikusitako balioa (9/2017 Legearen 101 artikulua). Kontratuaren iraupena kontuan hartuta (2 urte) eta balizko luzapenak (2 urte), zenbateko osoa hau da: 40.000 euro, kontratuaren guztirakoa, BEZ kanpo; hori da kontratuari dagokion 4 urteko iraupen osoari dagokiona, luzapenak barne.

5. ZERBITZUAREN FINANTZAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaindu ahal izateko 2018eko aurrekontuan kreditua badago. Era berean, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko ditu aurrekontu gaietan eskumena duen organoak.

6. LANEN ESLEIPENAREN ORDAINKETA

Kontratistak erabat gauzatuko dituen lanak adostutako prezioen arabera kobratzeko eskubidea dauka, egindako kontratuan, onetsitako aldaketetan eta Administrazioak emandako aginduetan oinarrituta.

Ordainketaren aurretik, lana gauzatu dela egiaztatuko duen agiria aurkeztuko da hilean behin eta hari oniritzia eman beharko zaio, baldintza teknikoen agiriarekin bat etorriz.

7. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honetan ez da prezioen berrikuspena aurreikusten.

8. BERMEAK

Ekonomikoki proposamen onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileak, hartutako betebeharren betepena bermatzeko xedearekin, esleipenaren zenbatekoaren %5eko behin betiko bermea eratu beharko du.

Aipatutako bermea eratzeko epea hamar egun baliodunekoa izango da, errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik zenbatuta, eta 9/2017 Legearen 108 artikuluak xedatutako edozein bide erabilita eratu ahal izango da. Adierazitako epean eskaera ez bada behar bezala betetzen, lizitatzaileak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da. Kasu horretan, eskaintzen sailkapen ordenari jarraituz, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari.

Behin betiko bermeak ondorengo kontzeptuei erantzungo die:

a) Kontratua epe barruan egikaritzea, 9/2017 Legearen 153 artikuluak xedatutakoarekin bat etorriz.

b) Kontratistari ezarritako zehapenenak, 9/2017 Legearen 192 artikuluak xedatutakoarekin bat etorriz.

c) Kontratuan jasotako prestazioak, kontratazio organoak onartutako eta kontratiztak egindako hobekuntzak barne, Kontratuan jasotako prestazioak, kontratista lana betetzerakoan atzeratzen delako Administrazioari eragiten zaizkion gastuak eta kontratua egikaritzerakoan nahiz hura ez betetzeagatik Administrazioari eragiten zaizkion kalte eta galerak (baldin eta kontratua bertan behera uztea bidezkoa ez bada) behar bezala gauzatzea.

d) Kontratua amaitutzat ematen den kasuetan agindu daitekeen konfiskazioa.

e) Gainera, kontratuan aurreikusitako berme-aldian hornitutako ondasunetan akatsik edo hutsunerik egon ez dadin izango da behin betiko bermea kontratuan.

Bermea 9/2017 Legearen 111. artikuluan xedatutakoaren arira itzuliko da, behin kontratuaren likidazioa onetsita eta bermearen epea igarota, betiere adjudikaziodunaren erantzukizunak sortzen ez badira.

8. KONTRATUAREN BETEARAZPENA

Kontratua kontratistaren arriskuan eta menturan beteko da.

Kontratua agiri honetako klausulei, horri lotutako zehaztapen teknikoei eta adjudikaziodunak egindako eskaintzari erabat lotuta gauzatuko da, baita 9/2017

Legeak xedatutakoari ere, Administrazioaren zuzendaritzapean, ikuskaritzapean eta kontrolpean. Administrazioak ahalmen horiek bai idatziz, bai ahoz gauza ditzake.

Kontratistari edo horren mendeko pertsonei egotzi dakizkiekeen egintzen edo ez-betetzeen ondorioz kontratuaren garapena egokia izateko konpromisoa hartzen duenean, Administrazioak kontratua burutzeko ordena egokia erdietsi edo berrezartzeko beharrezkotzat jotako neurriak hartzea agindu ahal izango du.

Udalak eskubidea dauka edozein unetan zuzendaritza eta ikuskaritza ahalmenak egikaritzeko eta kontratistari jarraibideak eman ahal izango dizkio. Jarraibide horiek derrigorrez bete beharrekoak izango dira kontratistarentzat, betiere, baimendu gabeko lanen aldaketak ekartzen ez badituzte eta kontratu honetan adostutako baldintzen eta indarrean den legediaren xedapenen kontrakoak ez badira.

Esleipendunak arduradun teknikoa izendatu beharko du kontratua burutzeko eta Udalak beharrezkoak jotzen dituen bileretara joateko.

10. KONTRATISTAREN LAN-BETEBEHARRAK ETA SUBROGAZIOA

10.1.- Giza baliabideak eta subrogazioa.

10.1.1.- Kontratista derrigortuta egongo da indarrean diren lege xedapenak edo kontratuaren indarraldian sorturikoak betetzera lanaren, aurreikuspenaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta higienearen alorretan, kontratatutako zerbitzua ematera atxikita dauden kontratistaren mendeko langileei dagokienez. Hau horrela izan dadin, langileei dagozkien TC1 eta TC2ak aurkeztuko dira eta Gizarte Segurantzari, PFEZ atxikipenak etab. dagozkien kotizazioak egingo dira. Hilean behin Udaletxera bidali beharko dira: TC1 eta TC2 eta langile guztien nominak, hala eskatzen baldin bada.

Laneko segurtasun eta osasunari dagokionez, araudiak agintzen duena bete beharko da. Era berean, legeak ezarritako kontrol eta babes-mailak gainditu beharko dira. Hori horrela dela ziurtatzeko, zerbitzuak horri dagokion memoria aurkeztuko du eta inolaz ere ez die kalterik egingo Udalak nahi duenean egin ditzakeen ikuskaritza eta kontrolei. Enpresa esleipendunak betekizun hauek bete ezean, Zierbenako Udalak ez du inolako ardurarik izango.

10.1.2.- Kontratatzaileak kontratu honetan aurreikusitako lanak, baldintza teknikoen pleguan edota eskaintzan zehaztutako langile kopuruarekin burutuko ditu. Halaber, eskaintzan aurreikusitako lanak ondo burutzeko, beharrezkoa den langile-kontratazioa enpresa esleipendunaren kargura izango da, eta zerbitzuari dagokion gutxieneko langile kopurua bermatuko du une oro. Langileen gizarte eskubideei

(baimenak, oporrak) edo gerta daitezkeen bajei aurre egin beharko zaie, legeak ezartzen duen bezala eta beharrezkoa den pertsonala kontratatuz. Behin behineko kontratazio horietatik eratorritako pertsonal-gastuak ezin izango zaizkio Udalari egotzi, eta lizitatzaileak aurkeztutako pertsonal-gastuen eskaintzan aurreikusita izan beharko ditu.

10.1.3.- Esleipendunak lan hau burutzera bidaliko dituen langile guztiek, kontratuaren baldintza teknikoen edo partikularren pleguan edota esleipendunak aurkeztutako eskaintzan agertzen diren trebakuntza eta eskarmentua izan beharko dute. Halaber, kontratua burutzeko egingo dituen lanak egokiak izango dira. Langile hauen datu pertsonalak ez dira agertuko ez eskaintzan ez kontratuan; lanari edo eginkizunei erreferentzia eginez agertuko dira.

10.1.4.- Esleipendunak kontratu honen xedea betetzeko dituen langile guztiek esleipendunaren plantillaren parte izan beharko dute, eta Zierbenako Udalak ez du lan harremanik izango ez langile horiekin ez esleipendunak kontratuak irauten duen bitartean kontratatuko dituenekin ere. Langile horiek esleipendunaren menpe egongo dira, eta enplegu-emaile gisa, lan arloan, gizarte segurantzan eta lan arriskuen prebentzioan indarrean dauden araudiak bete beharko ditu. Zierbenako Udalak ez du inolako erantzukizunik izango esleipendunaren eta langileen artean sortutako betebeharretan, ezta kaleratzeek edo hartutako neurriek zuzenean edo zeharka kontratu hau bete, ez-bete, apurtu edo beronen interpretazioarekin harremana dutenean ere.

Klausula honetan adierazitakoa bete ez eta indarrean dauden lan kontratuak amaitzen badira, eman beharreko kalte-ordainak, esleipendunaren kontura izango dira. Era berean, kontratatutako zerbitzua amaitutakoan indarrean dauden behin-betiko kontratuak edo konponezinak ere amaitzen badira, eman beharreko kalte-ordainak, esleipendunaren kontura izango dira. Ez-betetze horri aurre egiteko, bermea nahikoa bada, konfiskatu egingo da.

Zierbenako Udalak ez du zerikusirik izango esleipendunaren lan harremanekin, eta sinatutako kontratuetan egondako enpresa ondorengotzetan ez du parte hartuko.

Esleipendunak ezingo ditu Zierbenako Udalarekin sinatutako kontratuaren xede diren prestazioak enpresaren gainerako jardunetatik bereizitako eta nortasun propioa duen unitate-ekonomikoa sortzeko moduan antolatu, inoiz ere ez. Xede horretarako, aipatu kontratua gauzatzera bideratutako langileen zereginak, guztienak, ez dira lanari berez dagozkienak bakarrik izango. Kontratuaren xede diren prestazioak hirugarren bati azpikontratatuz gero, irizpide hau esleipendunak ezarri beharko du, udalak aurrez baimena emanda.

10.2.- Zerbitzuaren antolakuntza.

10.2.1.- Kontratatzailearen ardura izango da, kontratatutako lanak osotasunean eta era egokian eman ahal izateko, zerbitzua eta langileen lan eta gizarte eskubideak ere ondo antolatzea. Udalak ezin izango du esku-hartu enpresak langile bakoitzarekin hartutako erabakietan, kontratatu den zerbitzua eta lanak ondo ematen direlakotik haratago.

10.2.2.- Kontratatzailea kontratu hau burutuko duen pertsonalaren enpleguaren egonkortasuna lortzen saiatuko da, eta ordezkapena behar izanez gero, kontratuan zehazten den titulazio edota eskarmentua duen beste pertsona batek egingo duela bermatuko du. Aldaketa horien berri, kontratuaren udal arduradunari emango dio. Udal bulegoetan zerbitzua emango duten langileek enpresa kontratatzailearekin duten erlazioa aitortuko duen bereizgarriren bat izan beharko dute.

10.2.3.- Esleipendunak era zuzen, eraginkor eta jarraituan zuzenduko ditu kontratua burutuko duten pertsonak, eta enplegu-emaile gisa betebehar eta eskubide guztiak bete beharko ditu: hitzarmen kolektiboa, baimenak ematea, oporrak eta lizentziak; lanerako asistentzia eta eraginkortasunaren kontrola; soldaten ordainketa, Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak eta PFEZri dagozkion atxikipenak; trebakuntza-araudiari dagokiona betetzea eta lan arriskuen prebentzioa, etab.

10.2.4.- Kontratistak ordezkari bat izendatuko du eta berori izango da enpresaren eta Udalaren arteko solaskide bakarra. Bere ardura izango da kontratuaren xede diren lanak burutzea, eta burutzeko ardura duten langileek dagozkien lanak egitea eta kontratatuta ez dauden beste batzuk ez egitea. Arduradun honek gainontzeko langileei lana banatuko die, eta beharrezko aginduak emango dizkie; halaber, udal arduradun edo udal-langile baten aginduak bete ez ditzaten jagongo du. Ondo arrazoitutako kasu berezietan izan ezik, kontratuaren udal arduradunak eta kontratu honekin erlazionatutako gainontzeko pertsonalak, enpresak izendatutako arduradunarekin baino ez dute erlaziorik izango, lana burutzeko beharrezkoa den harreman adeitsuari eta kolaborazioari kalterik egin gabe.

10.3.- Negoziazio kolektiboa.

Udalak kontratu hau beteko duten langileek negoziazio kolektiborako duten eskubidea aitortzen du; nolanahi ere, Udalak ez du inolaz ere parte hartuko ez negoziazio horretan, ezta alde biek lortutako akordioen egikaritzan ere. Enpresa esleipendunak indarrean dagoen Hitzarmen Kolektiboa errespetatu beharko die zerbitzu hau eskainiko duten langileei, kontratua amaitu edo salatu arte.

Esleipendunek hitzarmen honek zerbitzuaren jarduera ekonomikoan izan dezakeen ondorio ekonomikoa aztertu eta bere gain hartu beharko dute eta eskaintzan gehitu. Aitzitik, ezin izango die kontzeptu horiengatik urte bakoitzerako ezarri den prezioa baino ordainsari handiagoa eskatu Udalari. Eskatu ahal izango dien bakarra, plegu honetan aurreikusitako eta ezarritako urteko preziotik eta prezio horien berrikuspenetatik eratorritakoa izango da.

Langileek eta enpresariek ondorengo negoziaketetan lortu ditzaketen akordioei kalterik egin gabe, esleipendunak ezin izango dio inolaz ere, negoziazio kolektibotik eratorritako kosterik egotzi Udalari, ez soldata igoerarik, ezta ondorio ekonomikoa duten beste gizarte-lan onurarik ere. Eskatu ahal izango dion bakarra, kontratuaren prezioaren berrikuspenetik eratorritako prezio igoera izango da.

Kontratuan egindako aldaketak direla eta plantilla handitu behar bada, ezin izango zaio Udalari pertsonalari dagokion kostu handiagorik egotzi, kontratua esleitzeko unean lanpostuari dagokion kostuaren prezioa errebisatzeko sistema aplikatzetik eratorritakoa ez bada.

10.4.- Pertsonal berria hautatzea.

Langile gehienak lehenagotik enpresak kontratatuta egon beharko dute. Hala ere, enpresa esleipendunak kontratu hau burutzeko langile berriren bat kontratatu behar badu, kontratu hau burutzeko zerbitzu honekin zuzenean lotuko ez dituen kontratazio-modalitateren baten pean kontratatu beharko du. Hau da, langile berri horrek enpresa esleipendunarekin lotura izango du, eta lan-kontratu horietan mugikortasun geografikoa aurreikusten duen klausula sartuko da. Zierbenako Udalak ez du inolako esku-hartzerik izango hautaketa prozesuan.

Kontratatzaileak ezin izango du zerbitzua emateko pertsonala handitzea eragingo duten kontrataziorik egin, baldin eta zerbitzua handitzeko kontratu-aldaketa baten ondorioz onartutakoa ez bada.

Kontratatzaileak langileen kontratazioari dagokionean hemen agertzen den zerbait ez betetzea falta larritzat hartuko da, eta plegu honetako baldintza teknikoen 9. Puntuko zigorra jasoko du. Falta larritzat hartzen den horri dagokion zigorra eta aipatutako kalteordaina aplikatuko da, betiere kontratatzaileak pertsonala kontratatzen badu eta indarrean dagoen lan araudia betetzen ez badu. Ez-betetze horretatik eratorritako zigorrak eta eragindako kostuak kontratatzaileak asumituko ditu.

11. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA

Kontratistaren ardura izango da zerbitzu-eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea.

12. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio-organoak, kontratua hobetu ondoren eta interes publikoko arrazoiak medio, aldaketak hitzartu ahalko ditu, 9/2017 Legeak aurreikusitako kasuetan eta adierazi bezala. Hala eginez gero, behar bezala justifikatu beharko du espedientean.

Aldaketak egin ahal izateko, nahikoa justifikatu beharko da 9/2017 Legeak aurreikusitako inguruabarretakoren bat gertatzen dela. Aldaketa horiek ezingo dituzte aldatu likidazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak eta, era berean, beharrezko egiten dituen kausa objektiboari erantzuteko beharrezko aldakuntzak baino ezingo dituzte sartu.

13. LANAK HARTZEA

Kontratu honen ezaugarriak kontuan hartuta, lanak amaituta daudela ulertuko da, hasitako lan guztiak amaituta daudela egiaztatzen denean. Hori, egiaztatze aktaren bitartez egingo da.

14. ZEHAPENAK KONTRATISTARI EZ-BETETZEAGATIK

Kontratistak, berari lepora dakizkiokeen arrazoiak direla eta, kontratuan zehaztutako zerbitzuren bat zati batean gauzatu gabe uztekotan edo udal agindu bat bete ezean, Administrazioak aurretiaz ez du eragingo inolako intimaziorik eta Udalak ondoko hauek ezarri ahal izango ditu:

- Eragindako kalteengatik eta hala dagokionean, kontratua suntsiarazi ahal izango du; era berean, fidantzarekin gelditu ahal izango da eta kalte-ordaina eskatu.
- Zehapenak ezarri.

Zehapenak ezartzeko kontratatzaileari jakinaraziko zaio proposamena, 10 eguneko epean bere interesen alde aukera egokiena zer den erabaki eta alega dezan. Zehapen hori exekutiboa izango da, Tokiko Gobernu Batzordearen onarpenaren bitartez, eta dagokion fakturatik zenbateko hori kenduko da, kontratua suntsiarazten ez bada (azken hori kontratazio organoak erabakiko luke).

Kontratuaren xedearen betekizuna akasduna izateagatik, edo hartutako konpromisoen ez betetzea larria izateagatik jarriko diren zehapenak ez betetze bakoitzaren larritasunaren araberakoak izango dira (banaka hartuta). Hala ere, ezin izango dira kontratuaren prezioaren ehuneko 10 baino gehiagokoak izan (BEZ kanpo), eta guztien baturak ezin izango du kontratuaren prezioaren ehuneko 50 baino gehiago izan.

Edonola ere, prezioa gutxituko da, bete gabe gelditu den zerbitzuaren proportzio berean.

15. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Kontratu hau suntsiarazteko kausa izango dira, pleguetan zehaztu eta 9/2017 Legean ezartzen direnak.

Kontratu hau suntsiarazteko kausa ondokoa ere izango da: kontratistak plegu honetan eta baldintza teknikoetan agertzen diren betebeharrak ez betetzea, lanak justifikaziorik gabe atzeratuta egitea edota Udalari kalte eragiten dion beste edozein egoera.

Kontratua suntsiaraztea Tokiko Gobernu Batzordeak erabakiko du, espediente egokia izapidetu ondoren, interesdunari entzunaldia eginda. Era berean, zerbitzuaren prestazioa uztea eta kontratua berriro adjudikatzeko lizitazioaren deialdia egitea erabakiko du.

Kontratistak kontratua amaitzea erabakiz gero, behin-betiko bermea konfiskatuko du, Administrazioari eragindako kalteen kalte-ordainari kalte egin gabe. Hau da, bermetik soberan gelditzen den kantitatea konfiskatuko du.

16. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Udalak ondorengo eskumenak ditu: kontratua interpretatzea, kontratua betetzeak dakartzan zalantzak argitzea, kontratua aldatzea interes publikoaren ondorioz, horren hutsaltzea adostu eta horren ondoreak zehaztea, betiere 9/2017 Legean ezarritako betekizunen eta ondoreen mende.

II. KONTRATAZIO-PROZEDURA

17. ESLEIPEN-PROZEDURA ETA ERA

Kontratu honen esleipena kontratazio-organoak egingo du, kontratazio-mahaiak hala proposatuta, izapidetze sinplifikatuaren eta prozedura irekiaren bidez.

Kontratua esleitzeko oinarri gisa erabilitako eskaintzen balorazio-irizpideak, modu automatikoan zenbatu ezin daitezkeen eta zenbatu daitezkeen irizpideetan bereizita, hurrengo hauek dira:

AUTOMATIKOKI ZENBATU EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

Ondoko atalak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa baloratuko da:

- Proiektu teknikoa: 25 puntura arte lanaren metodologia, zerbitzuak eta eman beharreko orduak, orduak eta jendearentzako arreta zuzenari eskainitako ordutegia.

AUTOMATIKOKI ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

- Eskaintza ekonomikoa: Gehienez ere 100 puntura arte. Puntuaziorik altuena eskaintza ekonomikoari emango zaio; gainontzeko eskaintzei, berriz, honako formula hau aplikatzetik ateratakoa: eskaintza ekonomikorik baxuena baloratzen den lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza eta orotara irizpideari aplika dakizkiokeen puntu kopuruarekin biderkatzea.

P = (Ob x 100) / Ol
Non: P lortutako puntuazioa da.
Ob eskaintza ekonomiko baxuena da.
Ol baloratzen den esleipendunaren eskaintza da.

EZOHIKO EDO NEURRIGABEKO BALIOAK DITUZTEN ESKAINTZAK: Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 149 artikuluak ezarritakoaren arabera, aurkeztutako eskaintzak, prezioari dagokionean, neurrigabeak edo ausartegiak dira, baxuenaren portzentajeak 15 puntu portzentualetan gainditzen dituenean esleipenean aurkeztu diren bataz besteko prezio baxuenak.

Ezohiko eskaintza edo neurrigabeak Herri Administrazioen Kontratuen Legeak ezartzen dituen parametro objektiboen arabera baloratuko dira.

18. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Kontratazio-prozedura honetan pertsona fisikoak eta juridikoek parte hartu ahal izango dute, betiere jarduteko erabateko gaitasuna badute eta 9/2017 Legearen 71 artikuluak xedatutako egoeraren bat (kontratatzeko debekurik) ez badute.

Pertsona juridikoaren ordezkaritzan kide batek esku hartu badu, orduan horretarako gaituta dagoela agirien bidez egiaztatu beharko du. Kasu batean zein

bestean, ordezkariaren gain aipatutako kontratatzeko ezgaitasun-arrazoiek eragina izango dute.

Oorobat, enpresariek kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko eskatu beharreko enpresa edo lanbide gaikuntza izan beharko dute.

Administrazioak ondore horretarako aldi baterako eratutako enpresarien elkarteak kontratatu ahal izango du (horretarako beharrezkoa izan gabe horiek eskritura publikoan formalizatzea esleipena egin arte). Hain zuzen ere, erantzukizun solidarioa izango dute Administrazioari begira, eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatuko da. Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du aurkeztu proposamen bat baino gehiago. Gainera, ezin izango du sinatu Aldi Baterako Elkarte gisa bestelako enpresekin, baldin eta hori bakarka egin badu, ezta Enpresen Aldi Baterako Elkarte gisa agertu ere. Printzipio hori betetzen ez bada, aurkeztutako guztiei gaitz-iritzia emango zaie.

19. **PROPOSAMENEN AURKEZPENA ETA ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA**

Kontratazio honen espedientea, baita berari lotutako dokumentazio teknikoa ere, erakusgai egongo da Zierbenako Udaleko bulegoetan, 09:00etatik 13:00etara, baliodun egun guztietan, lizitazio honen iragarkia Kontratatzailearen Profilean argitaratuta agertu ondoko egunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Proposamenak Zierbenako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, aurretik adierazitako ordutegi berean eta **15 egun naturaleko epearen** barruan, kontratuaren iragarkia kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean publikatu den egunetik zenbatuta. Iragarkia www.zierbena.net helbidean ikusgai dago.

Hautagaiak eskabidea postaz bidali badu, bidalketa-data Posta bulegoan justifikatu eta Zierbenako Udalaren Erregistroan iragarri beharko du **eskabidea egun berean eta beti ere 13:00 baino arinago, telefax (946365399) edo telegrama bidez igorri duela.** Betekizun horiek bete ez badira, edo igorpenaren komunikazioa eskabideak jasotzeko epea igaro ostean jaso bada, eskabidea ez da onartuko. Egutegiko hamar egun igaro badira aipatutako datatik eskabiderik jaso gabe, hori ez da onartuko.

Lizitatzaileek hiru gutun-azal itxi (A, B eta C) aurkeztu beharko dituzte, horrek edo ordezkariak sinatuta, eta horietako bakoitzean hau azalduko da: "PERTSONA ZAINTZAILEEI LAGUNTZA EMATEKO ETA ESKU-HARTZE PSIKOSOZIALA EMATEKO ZERBITZUEN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA"

Gutun-azal bakoitzean enpresaren izena, proposamena aurkezten duenaren izena eta abizenak agertuko dira eta gutun-azal guztiak sinatuta agertuko dira.

A gutun-azalaren azpi-izenburua "**KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA**" da, ondoko agiriak bilduta:

a) Eskaintza aurkeztu duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

b) Lizitatzailea pertsona juridikoa denean, eskaintza aurkeztu duen pertsonaren NANaz gain, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutako eraketa-, edo, hala denean, aldaketa-eskritura eta identifikazio fiskaleko zenbakia, baldin eta inskripzioa aplikatu beharreko merkataritza-legeriaren arabera eskatu behar bada. Europako Batasuneko Estatu Kideen enpresari ez-espainiarrak direnean, inskripzioa lanbide- edo merkataritza-erregistroan inskribatuta egon beharko da, betiere betekizun hori kasuan kasuko Estatuaren legeriak hala eskatu badu.

c) Lizitatzaileak bere izenean jarduten ez badu, edo hori sozietatea edo pertsona juridikoa denean, proposamen ekonomikoa sinatu duenak kontratazio-organoarenaurrean jarduteko behar besteko ahalordea duela eta horrekin bere izenean nahiz kasuan kasuko pertsonaren edo erakundearen ordezkari gisa kontratatzeko behar besteko ahalordea duela egiaztatzeko agiri sinesgarriak aurkeztu beharko ditu.

d) Kontratatzeko debekuetan ez dela ageri baieztatzen duen esanbidezko adierazpen arduratsua. Lizitatzaileek, 9/2017 Legearen 85. Artikuluan ezarritako baliabideetatik edozeinen ariora, aipatutako inguruabarretatik edozein bete ez dutela adierazi beharko dute. Hau da, ez daudela ezgaiturik edo ez dutela kontratatzeko debekurik, 9/2017 Legearen 71. Artikuluak ezarri bezala. Horretarako **I. Eranskina** erabili ahal izango da.

Lizitatzaileen Erregistroak luzatutako ziurtagiriaren bidez egindako egiaztapena. Aurretik aipatutako agiri guztien ordez, a) atalean jasotakoa izan ezik, ondoko erregistroetatik edozeinek luzatutako ziurtagiria ezarri ahal da: Bizkaiko Lurralde Historikoko Lizitatzaileen Erregistroak; Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialak; Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak; Erkidegoaren sailkapen-ziurtagiria. Kasuan kasuko erregistroak aurkeztutako ziurtagirian jasotako inguruabarrei dagokienez, eskatutako agirien egiaztagiria aurkeztuko da.

Edozein kasutan ere, ziurtagiriarekin batera lizitatzaileak egindako adierazpen arduratsua aurkeztu beharko da. Adierazpen horretan ziurtagiri egokian jasotako inguruabarrek inolako aldaketarik jasan ez dutela azpimarratuko da.

e) Enpresari batzuk lizitazioan Enpresen Aldi Baterako Elkartea eratuta esku hartu badute, horietako bakoitzak jarduteko gaitasuna aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko du. Era berean, proposamenean ABEE bakoitzak egin beharreko xedearen zatia adieraziko dute, horien guztien kaudimen-betekizunak zehaztu eta egiaztatzeko.

f) Atzerriko enpresen kasuan, aurreko betekizunez gain, mota guztietako ordenetako Espainiako Epaitegien nahiz Auzitegien jurisdikzioaren mende jartzeko adierazpena, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitezkeen intzidentziei begira, eta, hala denean, jurisdikzio-foruari uko eginda.

g) Prozedura honi dagozkion jakinarazpenak jasotzkeo helbide elektronikoa.

"B" gutun-azalak azpi-izenburutzat "**AUTOMATIKOKI ZENBATU EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEAK**" izango du eta eskaintzak baloratzeko irizpideak, agiri honen 17. baldintzan adierazita, betetzea egiaztatzen duten agiriak jasoko ditu:

Zerbitzuaren antolakuntzari, metodologiari, zerbitzuei eta eman ebharreko orduei eta jendeari zuzenean emango zaion arreta-ordutegiari buruzko proiektu teknikoa.

C gutun-azalaren azpi-izenburua **"AUTOMATIKOKI ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK**" da, eta ondoko edukia baino ez du izango: II. Eranskinean agertzen den eredua erabiliz aurkeztutako proposamen ekonomikoa.

Gutun-azal bakoitzaren edukia errespetatzen ez duten eskaintzak baztertuak izango dira ez baldin badituzte modu automatikoan kuantifikatu daitezkeenirizpideei eta modu automatikoan kuantifikatu ezin diren irizpideei dagozkien agiriak behar bezala desberdindu.

Administrazioak, dela esleipenaren aurretik dela esleipenaren ostean, eta kontratuaren aribidean, A, B eta C gutun-azaletan jasotako agirien edukien egiatasuna egiaztatu ahal izango du. Izan ere, enpresak aurkeztutako datuak eta inguruabarrak faltsuak izanez gero, kontratua deuseztatuko da, kontratistari egotzi dakiokeen ez-betetzearen ondorioz, behin betiko bermea galduta, edo, hala denean, bermerik eratu ez bada, horren zenbatekoaren kalte-ordaina ordainduko dio. Gainera, Administrazioari ere konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditzen duten kalte-galeren kalte-ordaina ordaindu beharko dio.

Kontratua esleitu ondoren eta behin errekurtsoak aurkezteko epea igarota, horiek formalizatu gabe, proposamenekin batera aurkeztutako agiriak adjudikaziodun izan ez diren interesdunen esku geratuko dira.

Lizitatzaileek eskatutako agiriak jatorrizkoan aurkeztu ahal izango dituzte edo, bestela, hauen kopia, notario batek edo Administrazio honek behar bezala benetakotuta.

20. AGIRIEN KALIFIKAZIOA, ENPRESEN HAUTESPENA ETA PROPOSAMENEN IREKIERA

20.1. Agirien kalifikazioa, ongitu daitezkeen akatsak.

Proposamenak aurkezteko epea igaro ondoren, kontratazio-mahaiak lizitatzaileek aurkeztutako administrazio-agiriak ireki eta egiaztatuko ditu, bai epean bai forman, hots, A gutun-azala.

Aurkeztutako agirian ongitu daitezkeen akatsak edo ez-betetzeak antzeman badira, orduan interesdunei fax edo posta elektroniko bidez komunikatuko die kontrataziomahaiak, eta, gehienez ere, 3 egun balioduneko epea izango dute komunikazioa egiten denetik zenbatuta, antzemandako akatsak ongitu ahal izateko.

Agirian ongitu ezin daitezkeen funtsezko akatsak edo gorabeherak ageri badira, proposamena baztertu egingo da.

Lan horiek amaitu ondoren, kontratazio-mahaiak lizitazioari begira onartutakoen, baztertutakoen eta bazterketa horren arrazoien gaineko esanbidezko adierazpena egingo du.

20.2. Proposamenen irekiera.

Lehenengo ekitaldia. B GUTUN-AZALAREN IREKIERA: "**AUTOMATIKOKI ZENBATU EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEAK**" lizitatzaileei jakinarazten zaien eta Zierbenako Udalaren kontratatzailearen profilean adierazitako egunean eta orduan egingo da.

Ekitaldi honetan aurkeztutako proposamenen, lizitatzaileen izenaren, agiriak kalifikatzeko emaitzaren, eta, hala denean, akatsen ongitzearen berri emango da. Ostean, mahaiak eskaintza teknikoak jasotzen dituen gutun-azalak ireki ahal izango ditu, aurkezpenaren hurrenkera aintzat hartuta, eta horietako bakoitzaren edukia azalduko du.

Jardundako guztia agirietan jasoko da.

Bigarren ekitaldia. Balorazioa egin ostean, eta hala denean, txosten teknikoa igorrita, ekitaldi publiko berrirako deialdia egingo da, eta hori Zierbenako Udalaren kontratatzailearen profilean adierazitako egunean eta orduan egingo da.

Lehenbizi, modu automatikoan zenbatu ezin daitezkeen irizpideen balorazioaren emaitza ezagutaraziko da.

Bigarrenez, C GUTUN-AZALEAN: **"AUTOMATIKOKI ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK**" jasotako agiriak irekiko dira, eta ondoren, proposamen ekonomikoak irakurriko dira.

Eskaintza abantailatsuen artean berdinketa emango balitz, kontratuaren esleipena eskaintza ekonomikoan zenbateko baxuena aurkeztu duen lizitatzaileari egingo zaio; berdinketak jarraituko balu, kontratuaren esleipena kontratazio mahaiak egindako zozketa bidez egingo da.

Jarraian, eta aurretiaz txosten egokiak eginda, kontratazio-mahaiak kontratua esleitzeko proposamena hori egin behar duen kontratazio-organoari helaraziko dio.

21. ESKAINTZEN SAILKAPENA, ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

21.1. Eskaintzen sailkapena.

Kontratazio organoak gehienetik gutxienerako hurrenkeran sailkatuko ditu aurkeztu diren proposamenak, betiere, proposamen horiek normalak ez diren balioak edo neurriz kanpoko balioak dituztela irizten ez bada. Horretarako, kontuan hartuko ditu pleguan adierazitako esleipen irizpideak eta egoki iritzitako txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu.

Kontratazio organoak eskaintza abantailatsuena egin duen lizitatzaileari eskatuko dio, hamar egun balioduneko epean, eskakizuna jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, ondoren zehazten diren ziurtagiriak aurkezteko:

- Indarreko xedapenen arabera ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren betebeharrak eguneratuta dituela adierazten dituzten agiriak aurkeztea.
- Kontratua esleitzeko zenbatekoaren %5eko behin betiko bermea eratzea (BEZa kanpo).
- Adjudikazioduna ABEE bat denean, goian aipatutako agiriez gain, epe berean, eraketaren eskritura publikoa, Aldi Baterako Elkarteari atxikitako IFK eta behar

besteko ahalordea duen ordezkariaren edo ahaldunaren izendapena jaso beharko da.

Adierazitako epean eskaera ez bada behar bezala betetzen, lizitatzaileak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da. Kasu horretan, eskaintzen sailkapen ordenari jarraituz, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari.

Bestalde, esleipendunak publizitate-gastuak ordaindu beharko ditu (gehinez 150 €).

21.2. Kontratu esleipena.

Kontratazio-organoak eskatutako dokumentazioa jaso eta egutegiko bost eguneko epean kontratua esleituko du. Halaber, esleipena sei hilabeteko epean abantailarik handiena eskuratu duen proposamenari egingo zaio, proposamenak irekitzen diren egunaren biharamunetik zenbatuta (B gutun-azalak).

Epe hau luzatu egingo da, indarrean dagoen legedia betez.

Eskaintza anormaltzat edo neurriz gainekotzat jotzen denean eskaintzaileari (edo eskaintzaileei, hala dagokienean) entzungo zaio, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa egin beharko du.

Kasu honetan, eskaintzaileak emandako arrazoiak eta txostenak aintzat hartuta, Kontratazio Organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen eskaintzaileari egingo dio esleipena, beti ere Administrazioaren lanak egiteko gaitasuna duela; bestela, anormaltzat edo neurriz gainekotzat jotzen ez den proposamenari egingo zaio esleipena.

Halaber, ezarritako epeak igaro badira eta ebazpen-erabakirik eman ez bada, interesdunek eskaintzak atzera bota ahal izango dituzte, baita, hala denean, gordailututako bermeak ere.

Kontratazio-organoak ezin izango du adierazi lizitazioa hutsala dela, baldin eta eskaintza edo proposamen onargarria badago, agirian jasotako irizpideak aintzat hartuta.

Kontratuaren esleipena, ziodun ebazpenaren bidez, erabaki eta gero, lizitatzaileei jakinaraziko zaie. Aldi berean, esleipena kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean formalizaziorako epea zehaztuko da.

21.3. Kontratua sinatzea.

Kontratua sinatzen denean gauzatuko da.

Kontratu honi ezin zaio kontratazio arloko errekurtso berezia jarri.

Epe hori igarota, betiere kontratua sinatzeko etena eragiten duen errekurtsorik jarri ez bada, edo, hala badagokio, errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etenaldia bertan behera uztea erabakiz gero, adjudikaziodunak kontratua sinatu beharko du, gehienez, bost eguneko epean, sinatzeko errekerimendua jaso eta biharamunetik aurrera.

Kontratua ezin izango da burutzen hasi aurretiaz sinatu barik, premiazko edo presazko izaeraz izapidetutako espedientea izan ezik.

Adjudikaziodunak, goian aipaturiko eta dagokion epean, kontratua formalizatzeko administrazio-agiria sinatu beharko du, eta horri baldintza dministratibo eta teknikoen pleguen agiriaren alea erantsiko zaio.

Kontratistak aurkeztutako eskaintzak kontratu-balioa du, hobekuntzei, proposamenei eta kontratuaren burutzapenean eragina izan dezaketen bestelako alderdiei begira, zarritako balorazio irizpideen arabera, kontratuaren esleipenerako erabakigarriak izan direnak.

Kontratua formalizatuta jasotzen duen agiria beti administrazio-agiria izango da, eta erregistro publiko orotan sartzeko baliozko titulua izango da. Bestalde, kontratua eskritura publikoan formalizatuko da, betiere kontratistak hala eskatu badu, eta horrek egilespenaren ondorioz sortutako kostuak ordainduko ditu. Kasu horretan, kontratistak kontratazio-organoari kopia eskuetsia emango dio.

III.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

22.- IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Agiri honen arabera egindako kontratuak administrazio-izaera izango du, eta bertan jaso ez den zatiari dagokionez, 9/2017 Legeak eta Administrazio Publikoetan kontratazioetan aplikagarriak diren gainerako arauetan xedatutakoa aplikatuko da.

Administrazio-klausula berezien agiri hau eta espedienteari erantsitako gainerako agiri teknikoak bat ez badatoz, agiri honetan xedatutakoa aplikatuko da.

23. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratuen interpretazioari, aldaketari, ebazpenari eta ondoreei buruz sortutako gaiak Kontratazio Organoak ebatziko ditu, eta horrek emandako ebazpenek Administrazio bidea agortuko dute.

Kontratuaren ondoriozko auzi-gaiak administrazioarekiko auzien Jurisdikzioaren mende geratuko dira.

I. ERANSKINA:

KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ DUELA BAIEZTATZEN DUEN ESANBIDEZKO ADIERAZPEN ARDURATSUAREN EREDUA

……jaunak/andreak, …… helbidea duenak, eta …….. NAN zenbakia duenak, bere izenean eta/edo ..... enpresaren ordezkari gisa, ... helbidea duena, eta ..... IFK duena

AITORTU DU

Berak, berak ordezkatzen duen Merkataritza Sozietateak eta Sozietatearen gobernuorganoak osatzen dituzten pertsonek ez daudela murgilduta Sektore Publikoko Kontratuen 7/2017 Legearen 71. artikuluan Administrazioarekin kontratatzeko zenbatutako debeku-, ezgaitasun- edo bateraezintasun-auzietan.

Era berean, enpresa horrek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren betebeharrak eguneratuta dituela jaso da.

Eta horrela ager dadin, **PERTSONA ZAINTZAILEEI LAGUNTZA EMATEKO ETA ESKU-HARTZE PSIKOSOZIALA EMATEKO ZERBITZUAK** kontratatzeko prozesuan parte hartzeko aurkeztu beharreko agirien ondoreetarako, aitorpen hau luzatu dut.

……..(e)n, 2018ko .....aren .....(e)(a)n

Sin:

II. ERANSKINA:

PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

Nik, ...jaunak/andreak, ……. .....
helbidean bizi naizen honek, ... NAN zenbakidunak eta…….telefonozenbakidunak, erabateko gaitasun juridikoarekin eta jarduteko gaitasunarekin, norberaren izenean (edo ..... enpresaren ordezkari gisa), **PERTSONA ZAINTZAILEEI LAGUNTZA EMATEKO ETA ESKU-HARTZE PSIKOSOZIALA EMATEKO ZERBITZUAK** kontratatzeko deitutako prozeduraren berri izanda, ondokoa aitortu dut:

1. Prezio honen truke betearazteko konpromisoa hartu dudala:
……..€/urteko (letrak eta zenbakiak). Prezio honen barruan kontratuak irauten duen denborako zergak, gastuak, tasak eta arbitraoak sartuta egongo direla ulertuko da; baita enpresa espeipendunaren mozkina ere.

2. Baldintza teknikoak, administrazio-klausula bereziak eta kontratu hau arautu beharreko gainerako agiriak ezagutzen ditudala, horiek guztiak beren beregi nire gain hartuta.

3. Ordezkatzen dudan enpresak hori ireki, ezarri eta abian jartzeko arauketan eskatutako betekizun nahiz betebehar guztiak betetzen dituela.

……..n, 2018eko .....aren .....(e)(a)n

Sin:

PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE INTERVENCION PSICOSOCIAL Y SERVICIO DE APOYO A PERSONAS CUIDADORAS, POR PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO.

I.- CONTENIDO DEL CONTRATO

1. ENTE CONTRATANTE Y ÓRGANO DE CONTRATACIÓN

El sujeto contratante es el Ayuntamiento de Zierbena, ente con personalidad jurídica pública de la Administración Local.

El órgano de contratación es la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Zierbena atendiendo al valor estimado del contrato fijado en la cláusula 4 de este pliego.

El órgano de contratación estará asistido por una Mesa de contratación, compuesta de la siguiente forma:

Presidente: Lorena Renovales Uranga (Secretaria Accidental del Ayuntamiento)
Vocales: Tatiana López García (funcionaria)
Vocales: María Jaca Ibarbia (funcionaria)
Secretario: Marta Manzano del Toro(funcionaria)

2. OBJETO DEL CONTRATO

El contrato tendrá por objeto la prestación del servicio de intervención psicosocial y servicio de apoyo a personas cuidadores, de acuerdo con el pliego de prescripciones técnicas y el resto de la documentación técnica que figura en el expediente y que tendrá carácter contractual.

3. PLAZO

El plazo de duración del presente contrato será de **DOS AÑOS**, contados desde el día siguiente al de la firma del contrato.

El plazo contractual será susceptible de prórroga anual, por un máximo de **DOS AÑOS**, debiendo recaer al efecto acuerdo expreso del órgano de contratación competente.

No obstante si llegado el término previsto del contrato, el Ayuntamiento aún no hubiera adjudicado un nuevo contrato, el contratista estará obligado a proseguir con la prestación del servicio por tiempo no superior a seis meses, dentro del cual el Ayuntamiento deberá decidir sobre la forma de gestión y, en su caso, la nueva contratación y debiendo permanecer, en cualquier caso, en la realización del servicio

que se produzca el relevo por el nuevo adjudicatario, facilitando el mismo con todos los medios a su alcance.

4. PRESUPUESTO DE LICITACIÓN Y VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO

El **presupuesto máximo de litación al año**, disponible para la ejecución del contrato, asciende a DIEZ MIL EUROS (10.000,00 €) que se desglosan de la siguiente manera:

Servicio de atención psicosocial: 7.250,00 €
Servicio de apoyo a personas cuidadores: 2.750,00 €
La prestación de los servicios no está sujeta a IVA.

Las ofertas que presenten los licitadores no podrán rebasar en ningún caso este presupuesto máximo de licitación anual, siendo desechadas automáticamente las ofertas que lo superen.

Valor estimado del contrato (artículo 101 de la Ley 9/2017). Teniendo en cuenta la duración inicial del mismo (2 años), y sus eventuales prórrogas (2 años más), el mismo asciende a: 40.000,00 €, equivalente al precio total de contrato, IVA no incluido, por los cuatro años de duración máxima previstos para el contrato, incluidas sus prórrogas.

5. FINANCIACIÓN DEL SERVICIO

Para sufragar el precio del contrato hay prevista financiación con cargo al Presupuesto municipal del ejercicio 2018; asimismo, el órgano competente en materia presupuestaria se compromete a reservar los créditos oportunos en los presupuestos de los ejercicios futuros que resulten afectados.

6. PAGO DEL PRECIO DE ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO

El contratista tiene derecho al abono, con arreglo a los precios convenidos, de los trabajos que realmente ejecute, con sujeción al contrato otorgado, a sus modificaciones aprobadas y a las órdenes dadas por la Administración.

El pago del precio se realizará, previa presentación y conformidad del correspondiente documento mensual que acredite la realización del trabajo, de acuerdo con lo previsto en el pliego de prescripciones técnicas.

7.- REVISIÓN DE PRECIOS

En el presente contrato no procederá en ningún supuesto la revisión de precios.

8. GARANTÍAS

